Porque es evidente que, con el nivel de infraestructuras que el término de Altsasu soporta ya en la actualidad, añadido a lo que se prevé que se pueda construir en el futuro (autopista en la N-1, polígono de Zangitu, etc) el terreno agrícola está sufriendo una importante regresión. Ya sabemos que en la actualidad la actividad agrícola y ganadera no constituyen una fuente de ingresos importante para la población alsasuarra. Pero, como ya ha quedado dicho, no se puede despreciar esta posibilidad que bien podría ser una solución en un futuro de crisis económica.

En la actualidad existen varios vecinos en la zona de Etxetxiki y Sorozarreta que practican la ganadería y la agricultura y que con el trazado que se propone en esta alegación se verían claramente afectados. Debido a la situación precaria de estas actividades en el mundo occidental, el impacto de infraestructuras de este tipo pueden hacer peligrar el futuro de las explotaciones. Por ello proponemos también que los impactos y la destrucción de terrenos y construcciones sean compensados en su justa medida, con la entrega de terrenos de igual o mejor calidad agrícola y la reconstrucción de todos los edificios que se vean afectados. Porque no se puede permitir que la construcción de una infraestructura vial cambie el modo de vida de los habitantes de sus inmediaciones.

Finalmente añadir que la situación que presenta en la actualidad el término de Altsasu no es mas que un fiel reflejo de la realidad a la que nos conduce lo que ha venido a denominarse "desarrollo". Una situación en lo que lo único que importa es el enriquecimiento desmesurado de unos pocos, a costa del sufrimiento y las penurias de los demás y de una destrucción salvaje del medio ambiente. Donde se priorizan una serie de relaciones a largas distancias que pueden producir grandes rendimientos económicos pero son siempre ruinosas desde un punto de vista ecológico, mientras se olvidan las lógicas relaciones entre comunidades cercanas donde se unen beneficios medioambientales y humanos. Una sociedad de la prisa y el estres, donde la velocidad es lo que cuenta, a pesar de que con ella se nos valla la vida. En fin, una sociedad deshumanizada.

Altsasu, a 13 de Septiembre de 1998

Horrialde honek hemen zegoen:

<http://www.sindominio.net/fundamento/index2.php?I=eusk/p>

Azken modifikazioaren data: 2003/5/23

[Imprimatu](#)

[E-mailez bidali](#)

Ekarpen alternatiboaren irudi laburpena

En esta página tan solo queremos enseñaros una pequeña visión de la propuesta alternativa que hemos hecho para el desdoblamiento de la N-1, con las fotos de los lugares por donde pasaría y la problemática que tendría. Como ya sabéis si habéis leído las paginas anteriores (y especialmente la [alegación](#) completa), esta propuesta se basaría en aprovechar el actual trazado de la N-1 para utilizarlo como uno de los carriles del desdoblamiento y construir a su lado el otro carril. Esto es, un verdadero desdoblamiento.

Como se puede apreciar, en primer lugar hemos colocado una foto representativa de las zonas por donde pasa la actual N-1. Tras ella va la explicación de la problemática que tiene ese lugar en concreto .Y la primera corresponde a la salida del pueblo en dirección Gipuzkoa.



Zona de Arbitrios: En este barrio de Altsasu las casas se encuentran muy cercanas a la carretera N-1 (en la foto, a partir de la curva), nuestra propuesta consiste en dejar una calle en el lugar donde existe la carretera actual y construir las dos vías paralelas a ella, a su derecha.



Zona entre los montes de Murgil y Torretxiki: Se trata de una zona estrecha, pero, dado que en la propuesta que presentamos se utiliza el actual trazado de la carretera, solo sería necesario construir una nueva vía, paralela a la actual, lo cual podría hacerse cuidando que la anchura de la mediana no fuera grande. Esto indudablemente afectaría a la regata de San Martín, la cual debería ser posiblemente desviada unos metros a su derecha, pero seguramente la afección no sería tan cuantiosa como la que provoca el proyecto actual de la autovía.



Zona de los hoteles y de Galtzadako Iturria: en este punto existe en la actualidad un amplio espacio para construir los dos carriles(en la foto en primer plano). se dejaría frente a los hoteles una carretera suficiente para darles acceso y que se uniría al enlace que se propone construir en la zona de la Revuelta de Ulaiar.



Revuelta de Ulaiar: en este punto se construiría un enlace que diera acceso a los hoteles, así como a la gasolinera de camiones y a las pistas de parcelaria de Arangoiti, Ulaiar y la antigua cantera de Aitzarte (en la foto en primer plano). Después del enlace de Ulaiar, existe a la izquierda de la carretera una gasolinera de camiones, así como diversos talleres. De esta forma se deberían construir los dos viales a la derecha del actual, formando una amplia curva, y dejando el paso necesario para el acceso a la gasolinera de camiones.



Ulaiar Haundi: Una vez superada la gasolinera el nuevo carril del desdoblamiento se puede construir a la izquierda del actual. El resto del trazado por este término se puede realizar de la misma manera, con un carril en la actual carretera y el otro, de nueva construcción, a la izquierda de esta (a la izquierda en la foto).



Zona de la Gasolinera de Ulaiar y de los caseríos de Sorozarreta: a pesar de su dificultad, creemos que si sería posible construir una nueva vía con dos carriles a la par de la actual carretera. Esta última debería permanecer como vía de servicio a los caseríos, la cantera y los diversos caminos rurales que comienzan en esa zona (Sorozarreta, Altzania...), para lo cual no sería necesario que tuviera la anchura actual. De esta forma, una posible solución para la construcción de los dos carriles necesarios en esta zona discurriría a la derecha de la actual carretera (también a su derecha en la foto). Esto implicaría realizar desmontes en la ladera de Erkudengoaitz, aunque si la carretera actual se estrecha estos no serían considerables. A la altura del segundo caserío (Benta), que dispone de un pequeño edificio también en el lado derecho de la actual carretera, este sería necesario derribarlo.



Cantera de Erkudengoaitz: en este punto, la carretera estaría ya a considerable altura, por lo que se podría construir un paso elevado, con lo que los dos carriles pasarían por encima de la actual carretera y se colocarían a su izquierda, dejando de este modo paso de servicio a la cantera, así como a la pista rural de Sorozarreta. Posteriormente los dos carriles continuarían a la izquierda de la carretera actual, en descenso paulatino hasta la rasante actual. En esta zona existe al pie de la carretera una casa pequeña en desuso que debería derribarse (en la foto al fondo).



Zona de Arkurutzeta: Aquí el nuevo carril se construiría paralelo a la carretera actual, a la derecha de esta en la foto. Para ello en este punto se haría necesario el desvío unos metros de la regata, o algunos desmontes en la peña de Arkurutzetagain para conseguir espacio. Sin

embargo, en varios puntos de esta zona la propia carretera actual ya tiene el suficiente terreno como para albergar las dos vías, ya que se han eliminado varias curvas y por lo tanto se ha ensanchado la caja por la que discurre.



Cruce de Zegama: A partir de este punto, el trazado que fue previsto en la Alternativa 1 del estudio del Gobierno de Navarra sería el adecuado para continuar el trazado hasta la muga de Gipuzkoa, dado que propone un auténtico desdoblamiento de la actual carretera. Así mismo, el enlace que se construyera para la carretera a Zegama sería del mismo tipo que esa alternativa proponía.

Horrialde honek hemen zegoen:

<http://www.sindominio.net/fundamento/index2.php?I=eusk/p>>

Azken modifikazioaren data: 2002/9/29

[Imprimatu](#)

[E-mailez bidali](#)

Medioendako komunikatu pare bat

Altsasutik Gipuzkoa mugaraino doan autobiarene proiektuari alegazio orokor bat

(Alegazioa egin duenaren prentsa agiria)

Alegazioa eragin duenok ez dugu ikusten bikoizketa bat, Altsasutik Gipuzkoa mugaraino autobide zatia egin nahi duen proiektuan. Bikoiztu aditzak "gauza baten elementuak banatuz beste gauza batzuk eratu" esanahia du. Hori ikusiz gero argi agertzen da Altsasuko Udalak duen proiektuan ez da proposatzen bikoizketa bat, beste azpiegitura berri bat baizik, orain dagoen errepidetik urrunduta. Horrexegatik, ibilbide berriaren autobide bat aurrean gaudela esan dezake.

Autobide berri hau gehituko da Altsasuko dermioan orain dauden N-1 errepidea, trenbidea eta parzelariako sareaz. Eta eragin handiak edukiko du balio ekologiko garrantzitsua duten eremu natural batzuetan: aritza basoak Arangoiti, Aizeleku, Uberaga eta Sorozarretan; pinudiak Murgil, Iradieder, Ubitarte, Arkurutzetazpi eta Txaraigorri dermioetan; eta pago basoak ere bai, Gazteluberrin hain zuzen ere. Azpiegitura berri honek Altsasu eta Gipuzkoa artean dauden errepideak bikoiztuko du, oraingo N-1 kasik erabili gabe uzten.

Horrexegatik, alegazioa aurkezten dugunok zera uste dugu: Gipuzkoaraino ibilbidea obetzeko benetazko bikoizketa egin beharko lukeela. Horretarako, oraingo errepidea erabili beharko luke eta bere parean bide berri bat eraiki. Modu honetan ingurugiroak jasaten duen eraginak gutxituko eta azpiegiturako ugalketa ekidingo lirake Altsasuko dermioan. Eta gainera gure proposamena merkeagoa izango litzateke seguraski.

Idea guzti hauekin eta dermioaren balio ekologikoak gordetzeko nahian, Altsasuko herritar talde bat sortu da autobiarene gobernu proiektuak duen eraginak informatzeko. Gure oraingo helburu garrantzitsuagoa Iraila bukaeran baino lehen aurkeztu nahi dugun alegazioarekiko sinadurak bilatzea da. Horretarako hitzaldiak, autobide berria egin nahi duen dermiotatik txangoak etabar egiten ari gara, eta laister alegazioaren aldeko sinadurak biltzeko horrialdeak aterako ditugu.

Autobide berri hau eragin handia eduki dezake errepide eta beste azpiegituraz beteta dagoen Altsasuko dermioan. Eta ezin da ahaztu herria etxeak dauden zonaldea baino gehiago dela.

Altsasun, 1998ko Abustuaren 19a

Etxegarate autopistari buruzko hitzaldia Altsasun

Azken urte hauetan, autobien eraikuntzak, industrialde sorrerak, gas hoditeriak, e.a. Altsasuko dermioan izugarriko kalteak eragin ditu. Gure lurak suntsituz, hau guztia suposatzen da giza garapena helburutzat hartuz. Hau dela eta altsasuar talde bat elkartu eta hori guztiari erantzun zuzena ematea nahi diogu, noski zure partehartzea eskeiniz.

Proiekturik suntsigarriena Etxegarateko Autopistaren eraikuntza da. Gure alternatiba, benetako bikoizketa bat egitea da oraingo errepidean; gure ustez logikoena, ingurugiroa gutxien suntsitu eta merkeena izango litzaketelako.

Honengatik guztiagatik deitzen dizugu **azaroaren 5-an Setan "Gure Etxean"** izanen da hitzaldira. Bertan gure proposamena aurkeztuko dugu.

Altsasun, 1998ko, Azaroaren 3a.

Horrialde honek hemen zegoen:

<http://www.sindominio.net/fundamento/index2.php?I=eusk/p>>

Azken modifikazioaren data: 2002/9/29

[Imprimatu](#)

[E-mailez bidali](#)

Nafar Gobernuaren erantzuna alegazioari

Nafarroako Aldizkari Ofiziala 130 zenbakia – Data 30/10/1998

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Herrilanak eta Zerbitzu Publikoak

4020/1998 FORU AGINDUA, urriaren 20koa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak emana, "N-1 autobia, 395 k.p.tik 397 k.p.ra" eta "N-1 autobia, Altsasu-Gipuzkoako muga, 397 k.p.tik 402 k.p.ra" egiteko proiektuen jendaurreko aldiak ebatzi eta behin betikoz onesten dituena.

Bide Zerbitzuak jakinarazi du Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak uztailaren 21ean emandako 2656/1998 Foru Aginduaren bidez, "N-1 autobia egitea, 395 k.p.tik 397 k.p.ra" proiektua teknikoki onetsi eta proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egoteko epea ireki zela.

Informazio hori 1998ko abuztuaren 12ko 96. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak uztailaren 21ean emandako 2656/1998 Foru Aginduaren bidez, "N-1 autobia, Altsasu-Gipuzkoako muga, 397 k.p.tik 402 k.p.ra" proiektua teknikoki onetsi eta proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egoteko epea ireki zen.

Informazio hori 1998ko abuztuaren 19ko 99. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Bide Zerbitzuaren ustez, hain hurbilak dira bi proiektuak, hala lekuari nola jendaurrean egoteko epeari dagokionez, non proiektu bakartzat hartzen ahal diren eta, gainera, hartutako alegazioak, kasu batzuetan, biei dagozkie eta, beste batzuetan, zaila da bietako bati atxikitzea. Hori horrela, bidezko da jendaurrean egoteko bi epeetan aurkeztutako alegazio guztiei batera erantzutea.

Hona hemen hartutako alegazioak:

.....

7. alegazioa.—Manuela Arregui y Martínez de Armañanzas andrea eta 178 sinadura gehiago.

Alegatzen dute: jendaurrean dauden "N-1 autobia, 395 k.p.tik 397 k.p.ra" eta "N-1 autobia, Altsasu-Gipuzkoako muga, 397 k.p.tik 402 k.p.ra" egiteko proiektuak oso kaltegarriak direla Altsasu herriarentzat eta bertako bizilagunentzat, ingurunean, gizartean eta ekonomian sortuko dituzten eraginengatik; trazadura berriko autobia bat egin ordez, proposatzen dute gaur egungo N-I errepidea bitan banatzea, autobia bihurtzeko (gaur egungo errepidea bi galtzadetako bat izanen litzateke).

Ondoko argudio hauetan oinarritzen dute eskaera:

—Proiektutako autobia eginen balitz, azpiegitura bat agertuko litzateke Altsasun eta horrela handitu eginen lirateke egun dauden azpiegiturak sortzen dituzten eraginak eta haiek okupatzen duten lur eremua.

—Autobia hori eginen balitz, bikoiztu eginen litzateke Altsasu eta Gipuzkoa artean dauden

errepideen kopurua eta erabili gabe utziko gaur egungo N-I errepidea.

–Azpiegitura berriarekin landa lurren galera handia gertatuko litzateke; basoak, laborantzako lurrak eta ekologia eta aisiaren aldeetatik baliotsuak diren lurrak ukituko lituzke galera horrek.

–Bestalde, "lurra" baliabidea bertan behera uztea ekarriko luke, nekazaritzari atea ixtea; egia bada ere sektore horrek atzera egin duela azken urteotan, litekeena da ondokoetan bertako bizilagunek berriz hastea, sistema ekonomikoaren krisialdia etorriaz gero, eta haien ustez, aukera hori ez da galarazi behar. Orobat, bizilagun batzuek abeltzaintza eta nekazaritza arloan jarduten dute gaur egun eta haien jarduketak kaltetu egingen luke proiektutako autobiak.

–Proiektututako autobiak lur maldatsua zeharkatzen du eta horren ondorioz, ebaketak eta lubetak egin beharko dira. Horrek, aurreikusita dauden gaineko pasabideekin batera, eragin handia izanen du zona horretako paisajea. Halaber, uste dute autobia diseinatzeko hartu diren ezaugarriak, beharrezkoak ez izateaz gain, gehiegizkoak direla.

–Azkenik, azpimarratu egiten dute azpiegitura traba bat izanen litzatekeela, hala pertsonentzat nola basa faunarentzat, eta inkomunikazioa sortuko lukeela udalerriko hainbat aldean artean.

Eragin negatiboak, beraz, pilatu egiten dira haien ustez, eta haiek ezabatzeko modu bakarra errepidea dagoen bezalaxe uztea da, hala ere, kontuan hartzen dute are gehiago kontuan harturik errepide horrek, ia guztiak, Madriletik Irunera, autobia ezaugarriak dituela, urteetan zehar egin diren bikoizketen ondorioz eta horrek zail egiten duela errepidea bere horretan uztea, kontuan hartuz, gainera, estatu osoan gehien erabiltzen den errepideetako bat dela; hori horrela, esan den bezala, haien proposamena da N-I errepidea bitan banatzea, ezaugarri apalago batzuekin, azaldutako eraginak baztertzeko edo, gutxienez, txikiagotzeko.

Erantzuna:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak otsailaren 15ean emandako 538/1996 eta 539/1996 Foru Aginduen bitartez, "N-1 autobia, 395 k.p.tik 397 k.p.ra" eta "N-1 autobia, Altsasu-Gipuzkoako muga, 397 k.p.tik 402 k.p.ra" izeneko proiektuak erredaktatzeko Baldintza Teknikoen Pleguak onetsi ziren.

Plegu horietako 1.4. idazatian, "Trazadurak" izenekoan, ondoko hau ezartzen da: "Onartutako gutxienezko eta gehienezko erradio eta parametroak 120 Km/h-ko berariazko abiadura bati edo, posiblea izanez gero, handiago bati dagozkionak izanen dira.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak azaroaren 25ean emandako 5097/1997 Foru Aginduaren bidez, "N-1 autobia, Altsasu-Gipuzkoako muga, 397 k.p.tik 402 k.p.ra egiteko hautabideen azterlanean" sartutakoen artean 4. hautabidea onetsi zen.

Azterlan hori Altsasuko Udalaren eskuan jarri zen irizpena eta iritzia eman zitzan; horrek onespina eman zion jendaurrean paratu den hautabideari eta uste da Udalak bizilagun gehien iritzia ordezkatzeko duela.

Gainera, aipatu hautabideak hautabiderik hoberenaren balorazioa izan zuen alde aurretik, oro har, ingurugiroaren ikuspuntutik.

Aipatu Hautabideen Azterlanean adierazten den bezala, egungo errepideak ondoko problemak ditu tarte horretan:

–Ezaugarri geometriko txarrak ditu, kurbadura erradio txikiak eta, tarteka, malda handiak.

–Egun batean 10.000 ibilgailu baino gehiagoko IMD duen trafikoa, ibilgailu astunen ia % 40 duena.

–Aurreratzeko ikusgarritasuna duten tarte gutxi.

–Abiadura mugatua.

–Bide bazterretan dauden etxebizitza, establezimendu, aglomeratu–planta eta gasolindegietara sartzeko bideek ez dute segurtasunerako behar diren baldintzak betetzen.

–N–I errepidearen erabilpena mugatua da, ondoko harrobiaren ustiapena dela eta, errepidea moztu behar baita leherketak egiten direnean.

Azaldutako zirkunstantziak kontuan hartuta, proiektuaren aurreko azterlanean ikusi beharreko hautabideen artean, baztertu egin zen N–I errepidea bitan banatzeari buruzkoa, aipatutako problemak konpondu ez eta areagotu egiten zituelako.

Gainera, kontuan hartu behar da N–I errepidea bitan banatuko balitz, autobia sartzeko bideen kontrola dela eta, beharrezkoa izanen litzatekeela eremu horretarako zerbitzurako bideak egitea, eta horiek, kontuan harturik gaur egun duen probetxamendua, zati nagusiaren bi aldeetan barna egin beharko lirateke.

Aztertutako hautabide guztiek bidea ematen dute N–I errepidearen egungo galtzada zerbitzurako bide gisara uzteko, eta hori onuragarria da eskualdeko funtzionalitatearentzat, batez ere Zuntaie auzoaren kasuan, bertan zerbitzurako bideak egiteko lekurik ez dagoenez (bestela bazterrak desagertuko bailirateke), ezinezkoa izanen litzateke autobia sartzeko bideen gainean egin beharreko kontrola egitea, trafikoa etxebizitzetatik urruntzea eta eraikinetara sartzeko bideek gaur egun dituzten arriskuak kentzea.

Abiapuntutzat harturik, beraz, azpiegitura berri bat haren funtzioaren ezaugarriekin egiteko bidezotasuna, ez baita ahaztu behar, beste alderdi batzuen artean, ibilbide luzeko bide baten zatia dela, begien bistan da hartutako erabakiak, baita proposatu litekeen beste edozeinek ere, eragin eta afekzio desberdinak sortzen dituela, baina eragin horiek ahalik eta txikienak izaten saiatu da, horretarako egin baita Ingurugiroaren gaineko Eraginari buruzko Azterlana, hori ere jendaurrean paratu dena.

Ondasun eta eskubide jakin batzuen afekzioari buruz, alegazio egileek modu orokorrean aipatu baitituzte, esan beharra dago Administrazioak haien balorazio zuzena eginen duela, kontuan hartu gabe eragina zein motatakoa den: zuzeneko okupazioa, haien ondare–balioa galtzea, haiek sortutako irabazien galera edo jarduera jakin bat bertan behera utzi edo baliogabetzea.

.....

12. alegazioa.–Patxi Galán Morcillo jauna eta 696 sinadura gehiago

Alegazio hau eta Manuela Arregi Martinez eta 178 sinadura gehiagok aurkeztutako **7. alegazioa** berdin–berdinak dira –hitzez hitz–; beraz, haren azalpen eta erantzunaren berri izateko, ikus bedi 7. alegazio hori.

.....

1998ko urriaren 13an Gobernuak hartutako erabakiaren bidez, udalez gaindiko proiektu sektoriala behin betikoz onetsi zen eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza

kontseilariak urriaren 19ean emandako 1158 Foru Aginduaren bitartez, "N-1 autobia, Altsasu-Etxegarate tartea" izeneko Proiektuaren Ingurugiroaren gaineko Eraginaren Deklarazioa formulatu zen, zeinaren zehaztapenak eraikitzeko proiektuetara erantsi diren.

Hori horrela, Bide Zerbitzuak emandako txosten eta proposamenarekin bat etorritz eta Kontratuei buruzko Foru Legearen 12. artikulua esleitzen dizkidan eskumenak erabiliz

AGINDU DUT:

1. "N-1 autobia, 395 k.p.tik 397 k.p.ra egiteko Proiektuaren" jendaurreko aldia ebaztea, azalpen zatian adierazi bezala.
2. "N-1 autobia, 395 k.p.tik 397 k.p.ra egiteko Proiektua" behin betikoz onestea.
3. "N-1 autobia, Altsasu-Gipuzkoako muga, 397 k.p.tik 402 k.p.ra" egiteko Proiektuaren" jendaurreko aldia ebaztea, azalpen zatian adierazi bezala.
2. "N-1 autobia, Altsasu-Gipuzkoako muga, 397 k.p.tik 402 k.p.ra" egiteko Proiektua" behin betikoz onestea.
5. Altsasuko Udalari jakinaraztea eskatutako neurri konpentsatzailek eman eta finantzatzeko Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatzen ahal duela Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarekin.
6. Jendaurreko aldi honen emaitza Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Nafarroako Foru Komunitateko bi egunkaritan eta Altsasuko Udaleko iragarki oholean argitaratzea, ohararaziz argitalpen hori Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Foru Legearen 59.4 artikuluan ezarritako ondorioetarako ere egiten dela.

Altsasuko Udalari, gainerako alegazio egileei, Departamentuko Idazkaritza Teknikoari eta Bide Zerbitzuari (Desjabetzapen Atalari) jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, mila bederatzehun eta laurogeita hemezortziko urriaren hogeian.-Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria José Ignacio Palacios Zuasti.

Horrialde honek hemen zegoen:

<http://www.sindominio.net/fundamento/index2.php?I=eusk/p>

Azken modifikazioaren data: 2002/9/29

[Imprimatu](#)

[E-mailez bidali](#)

Etxegarateko autobia egitea onesten dituen Foru Aginduak

Nafarroako Aldizkari Ofiziala 96 zenbakia – Data 12/08/1998

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Herrilanak eta Zerbitzu Publikoak

2656/1998 FORU AGINDUA, uztailaren 21ekoa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak emana, "N-1 autobia egitea, 395 k.p.tik 397 k.p.ra", proiektua, Elsamex, S.A. enpresa aholkulariak erredaktatua eta Bide Zerbitzuko Obren II. Atalak zuzendua, teknikoki onesten duena.

Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileak (1998–2005) epe horretan N-1 errepideko Altsasu–Etxegarate tarte bikoiztea aurreikusia dauka. Horrela, errepide nazional hori Nafarroako lurretan autobia bihurtzeari amaiera emanen litzaioke.

Egungo errepideko trafikoaren IMDa 11.597 ibilgailukoa da, horietatik % 37,50 astunak, 1997. urtean eginiko aforoetan lortutako datuen arabera; trazadurak, nahiz eta ezaugarri desegokirik ez izan, erdi–hirikoa den eremua zeharkatzen du eta partikularren sarbide edo jatetxe asko daude bertan. Horrek zaildu egiten du zirkulazio librea eta arriskua sortzen du komunikabide garrantzitsu honetan. Trazaduraren egungo galtzadak 7,00 metroko zabalera du eta 1,50 metroko bazterbideak.

Proiektuaren helburua da N-1 autobia obren definizioa 2 kilometroko tartean gutxi gorabehera, Gipuzkoaraino luzatuz berriki bukatu diren Altsasuko bidegurutzeko obrak.

Proiektuaren arabera tarte bat, 300ren bat metrokoa galtzada bakoitzean, tunelpean egingen da, Murgilko muinoaren azpian, eta bi zubi izanen dira egungo N-1 errepidearen gainean. Horretaz gainera, lotune bat izanen da N-1 errepidearekin gurutzatzeko, Altsasuko herrian sartzeko trafikoa antolatuko duena.

N-1 errepidearen trazadura berriak autobideen ezaugarriak izanen ditu: bi galtzada, bakoitzak 3,75 metroko bi errei eta bazterbideak, 2,50 metrokoa kanpokoa eta 1,00 metrokoa barnekoa. Egingen den autobia ardatza N-1 errepidearen egungo galtzadatik bereizi egingen da, eta azken hau zerbitzu bide gisa utziko da.

Bidezoruaren sekzioak honako hauek dira:

Zati nagusian:

–M.B.C.ko 4 cm, PA–12 mota, errodaduran

–M.B.C.ko 6 cm, S–20 mota, tartean

–M.B.C.ko 7 cm, G–25 mota, oinarrian

–M.B.C.ko 8 cm, G–25 mota, oinarrian

–30 cm–ko zementu lurzorua, oinarripean

Adarretan:

–M.B.C.ko 6 cm, PA–12 mota, errodaduran

-M.B.C.ko 6 cm, S-20 mota, tartean

-M.B.C.ko 10 cm, G-25 mota, oinarrian

-30 cm-ko zagor artifiziala, ZA-40, oinarriean

Bidezorua E-3 kategoriako zelaiune baten gainean ezarriko da.

Drenajeko jarduketa nagusiak: fabrikako 8 obra, 1,80 metroko diametroa duten sekzio zirkularrekoak, eta 2 marka bizelular, 4,00 x 2,50 metroko neurrikoak.

Proiektuan azaltzen da ukitutako zerbitzuak berrezarri egingen direla, horien artean gasbidea, 30 kV-ko linea elektriko bat eta horniketarako kondukzio bat, bai eta oraingo bideen sarea ere.

Kontuan hartu da ukitutako eremuetako paisajearen eta estetikaren lehengoratzea, eta hori kontuan izanen da lur-berdintze eta lubeta ezponden diseinuan; ukituriko eremua berriz landareztatzeko proiektua ere bada.

Hori horrela, Bide Zerbitzuak adierazi eta proposatutakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen Foru Legearen 36.2 artikulua emandako ahalmenak erabiliz, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 57. artikuluan xedatutakoari jarraikiz,

AGINDU DUT:

1. "N-1 autobia egitea, 395 k.p.tik 397 k.p.ra", proiektua, Elsamex, S.A. enpresa aholkulariak erredaktatua eta Bide Zerbitzuko Obren II. Atalak zuzendua, teknikoki onestea.

2. Proiektu horrek ukitutako ondasun eta eskubideen desjabetzapen espedienteari hasiera ematea.

3. Aipatu proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean. Epe horretan edozeinek aurkeztu ahal izanen ditu, idatziz, egoki juzkatzen dituen ohar eta alegazioak, bai eta argitara emandako zerrendan egin ahal izan diren hutsak zuzentzeko behar diren datuak ere. Horretarako, interesatuek aztergai izanen dituzte lurzatien planoak Altsasuko Udaletxean eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Bide Zerbitzuko bulegoetan.

4. Foru Agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Foru Komunitateko bi egunkaritan argitaratzea.

5. Foru Agindu hau jakinaraztea Altsasuko Udalari, zeini igorriko baitzaio lurzatien planoen kopia bat, eta Departamentuko Idazkaritza Teknikoari, Bide Zerbitzuari eta Desjabetzapen Atalari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, mila bederatzehun eta laurogeita hemezortziko uztailearen hogeita batean.-Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti.

Nafarroako Aldizkari Ofiziala 99 zenbakia – Data 19/08/1998

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Herrilanak eta Zerbitzu Publikoak

2657/1998 FORU AGINDUA, uztailaren 21ekoa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak emana, "N-1 autobia, Altsasu – Gipuzkoako muga, 397. k.p.tik 402. k.p.ra" egiteko proiektua, Ingeniería Idom Internacional enpresa aholkulariak prestatu eta Bide Zerbitzuko Obren II. Atalak zuzendua, teknikoki onetsi eta jendaurrean jartzen duena.

Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileak (1998–2005) epe horretan bikoiztu gogo du N-1 errepideko Altsasu–Etxegarate tartea. Horrela, errepide nazional hori autobia izanen litzateke oso-osorik Nafarroako zatian.

Eguno errepideko trafikoaren IMDa 11.597 ibilgailukoa da, horietatik % 37,50 astunak, 1997. urtean eginiko neurketetan lortu diren datuen arabera; trazadurak, nahiz eta ezaugarri desegokirik ez izan, zenbait sarbide ditu finka partikular, industria eta jatetxetara. Horrek zaildu egiten du zirkulazio librea eta arriskua sortzen komunikabide garrantzitsu honetan. Eguno galtzada 7,00 metro zabal da eta bidebazterrak, 1,50 metro.

Proiektuaren xedea N-1 autobia obrak zehaztea da, 5 bat kilometroko tartean, Gipuzkoako muga arte.

Proiektu honen prestakuntza 1996ko urrian lehiaketa bidez adjudikatzeko erabili zen pleguaren arabera, alde zuzenetik aukerak aztertu ziren eta, horiek jendaurrean jarrita zehaztean, beste azterlan bat egitea erabaki zen, N-1 errepidaren trazadura osoa, Altsasuko lotunaren eta Gipuzkoako mugaren artekoa, kontuan hartuko zuena.

Eman ziren lau aukeretatik, 4 zenbakia zeramana onetsi zen azaroaren 25eko 5097/1997 Foru Aginduaren bitartez. Haren garapenari dagokio teknikoki onesteko proposatzen den proiektua.

Proiektu horretan, 4.882,459 metrokoa da luzera. Gaur egungo N-1 errepidearen hegoaldeetik abiatzen da eta berrehun eta berrogeita hamar bat metro Gipuzkoan sarturik amaitzen. Tarte osoa saihesbidea da, baina Gipuzkoako tartean bikoiztu egiten da.

Bi lotune ditu: lehenak, Altsasukoak, autobia eta gaur egungo N-1, zerbitzu bide gisa, lotzen ditu trazaduraren tarteko puntu batean; eta bigarrenak, Zegamakoak, herri horretara doan errepidearekin lotzen du.

Proiektuak kontuan hartzen du autobia moztutako bide guztiak konpontzea.

A-120aren ezaugarriak ditu trazadurak: bi galtzada, 3,75 metroko bi erreikoa bakoitza, bi bazterbiderekin: 2,50 metrokoa, kanpokoak, eta 1,00 metrokoa, barnekoak. Bi galtzada horien artean, erdibitzailea, 14,00 metro zabal, muturretako trantsizio tarteetan izan ezik.

Hauek dira bidezoruaren sekzioak:

Zati nagusian:

–M.B.C.ko 4 cm, PA-12 motakoa, gaineko geruzan.

–M.B.C.ko 6 cm, S-20 motakoa, tartean.

–M.B.C.ko 7 cm, G-25 motakoa, oinarrian.

–M.B.C.ko 10 cm, G-25 motakoa, oinarrian.

-30 cm-ko zementu lurzorua, oinarripean.

Adarretan:

-M.B.C.ko 6 cm, D-20 motakoa, gaineko geruzan.

-M.B.C.ko 12 cm, S-20 motakoa, tartean.

-20 cm-ko zementu lurzorua, oinarrian.

Bidezorua E-3 kategoriako zelaiune baten gainean ezarriko da.

Hauek dira proiektuan sartutako egiturak: Altsasuko lotunea, Alzania ibaiaren gaineko bidezubia, trenbidearen gaineko pergola eta bidezubia eta Zegamako errepidea, izen bereko lotunean.

Proiektuan kontuan hartu da ukitutako zerbitzuak berriro ezartzea, horien artean, Iberdrola, S.A.ren linea elektrikoak, telefono instalazioak eta Sakanako Mankomunitatearen hornidurako kondukzio bat, baita orain arteko bideak ere.

Eraikitze proiektu honetan, ingurugiroaz egin den azterlanetik abiatuta, obrak egitean kontuan hartuko diren neurri zuzentzaileak zehaztu, definitu eta baloratu dira, eta ez da ahantzi paisajea eta estetika bere lehengora ekartzea lurrerauzketa eta lubetetan.

Hori horrela, Bide Zerbitzuak adierazi eta proposatutakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen Foru Legearen 36.2 artikulua emandako ahalmenak erabiliz, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 57. artikuluan xedatutakoari jarraituz,

AGINDU DUT:

1. Teknikoki onestea "N-I autobia, Altsasu - Gipuzkoako muga, 397. k.p.tik 402. k.p.ra" egiteko proiektua.

2. Proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen desjabetzapen espedienteari ekitea.

3. Aipatu proiektua, ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendarekin batera, 30 egun baliaduneko epean jendaurrean jartzea. Epe horretan, edozeinek aurkeztu ahalko ditu bidezkotzat jotzen dituen ohar eta alegazioak, baita, idatziz, argitara emten den zerrendan izan daitezkeen okerrak zuzentzeko datuak eman ere. Horretarako, interesatuen eskura egonen dira lurzatiaren planoak Altsasuko eta Olaztiko Udaletxeetan eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Bide Zerbitzuaren bulegoetan.

4. Foru Agindua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Foru Komunitateko bi egunkaritan argitara ematea.

5. Foru Agindu hau Altsasuko Udalarari jakinaraztea, zeini lurzatiaren planoen kopia bat bidaliko baitzaio. Halaber, Departamentuko Idazkaritza Teknikoari, Bide Zerbitzuari eta Desjabetzapen Atalari ere jakinaraziko zaie, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hemezortziko uztailaren hogeita batean.-Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti.

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Beste Xedapenak

ERABAKIA, 1998ko uztailearen 6koa, Nafarroako Gobernuak hartua, "N-1 autobia.

Altsasu–Etxegarate tartearen proiektuaren izapidaketari hasiera eman eta Udalez Gaindiko Proiektu Sektorial deklaratzeko duena. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sustatu du.

I.–Aurrekariak.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, iragan maiatzaren 15ean, "N-1 autobia. Altsasu–Etxegarate tartearen proiektuari buruzko dokumentazioa aurkeztu zuen, Udalez Gaindiko Proiektu Sektorial gisa izapidatzeko.

II.–Deskribapena eta hirigintzako balorazioa.

Proiektu sektorialeko obrak Altsasu eta Olaztiko mugapeetan egingen dira; bi herri horiek berrikusten ari dira Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioak.

Altsasuko mugapean ukituko diren lurzorua urbanizaezinak dira, batzuk "oihan" kategoriakoak eta beste batzuk "generiko" kategoriakoak. Oihan lurzorua, egungo errepideak ere zeharkatzen dituenak, ez lituzke aztertutako aukeretako edozeinek soilik ukituko, autobia obrak egiteko beste soluzioren bat eman izan balitz, hark ere ukituko zituzkeen, ezinbestean.

Lurraldeari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen 31. artikulua, lurzoru mota honentzat, "obra publikoen exekuzio, mantenimendu eta zerbitzurako beharrezkoak diren eraikuntza eta instalazioak" baimentzeko aukera ezartzen du. Egin asmo diren obrak, onura publikoa ekarriko dutenak ez bairik gabe, aipatu Legearen esparruan sartzen dira, eta Proiektu Sektoriala onestearen ondorioz, Foru Lege bereko 62. artikuluan ezarritako jarraikiz, Altsasuko Arau Subsidiarioak horren zehaztapenei egokituko zaizkie, alegia, une honetan egiten ari den berrikusketan zehaztapen horietara egokitu beharko dituzte arauak.

Beste horrenbeste esan daiteke Olaztiko mugapean ukituko diren lurzoruen gainean, eta horiendako ere Altsasuko kasuan azalduriko soluzio bera eman daiteke.

Horretaz gainera, Altsasuko mugapean gas kondukzio bat dago, Altsasuko lotuneko ekialdeko gloriatiatik hurbil pasatzen dena, proiektaturiko autobidearen zati nagusia zeharkatuz eta proiektuan aurreikusitako beste elementu batzuk ukituz.

III.–Ingurugiroaren arloan kontuan hartu beharrekoak.

Proiektua ezartzeko eremuaren ingurune fisiko eta sozioekonomikoa aztertutik, ez da topatu ingurugiroaren ikuspegitik aparteko balioa duen berezitasunik; honako alderdiotan gutxiti beharko da eragina: Sorozarretako zuhaitzia, hau da, zuhaitz zaharrek hondar hariztia, josteta erabilpen finkatukoa; Altzania ibaia, ur bazterreko landareak eta arrain fauna dituenak; Aralar inguruko eta Altzaniako mendi–hegal zuhaizdunak; Murgil mendia; zenbait etxebizitza eta bi jatetxe; abeltzaintzako ustiategi batzuk, belardiak dituztenak, eta Erkudengo ermita.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura bidali beharko den Eraikuntza Proiektuan, I.E.A.n proposaturiko aurreneurri eta neurri zuzentzaile zein kontentsatzaile guztiez gainera, honako alderdiak ere kontuan izan behar dira:

- a) Bereziki zainduko da Altsasuko, Erkudengo ermitako eta atsedenguneetako inguruneen eta abarren diseinua.
